

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” - 2019

Azpi-egitasmoak:

- Gurasoei begirako kanpaina
- Familien arteko lehiaketa.
- “Euskaraz oparitu”
- “Kalean olgetan” kanpaina

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “Gurasoei begirako kanpaina”

- 3.1.1.- Oinarriak
- 3.1.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.1.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.1.4.- Aurrekontua

3.2.- “Familien arteko lehiaketa erraldoia-2019”

- 3.2.1.- Oinarriak
- 3.2.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.2.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.2.4.- Aurrekontua

3.3.- “Euskeraz oparitu” kanpaina.

- 3.3.1.- Oinarriak
- 3.3.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.3.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.3.4.- Aurrekontua

3.4.- “Kalean olgetan” kanpaina

- 3.4.1.- Oinarriak
- 3.4.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.4.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.4.4.- Aurrekontua

4. KRONOGRAMA

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

Eranskinak

- I. **Eranskina:** Gurasoei banatutako fitxa.
- II. **Eranskina:** URE elkartearekin hitzarmena familia lehiaketarako (eredua)
- III. **Eranskina:** Euskaraz oparitu kanpainako orria
- IV. **Eranskina:** HASI HEZI erakundearekin elkarlana.
- V. **Eranskina:** “Kalean olgetan” (hausnarketa eta proposamena)

1.-SARRERA

Egitasmo orokor bat dugu “Familiabidezko jarraipena” dinamizazio proiektua eta horren barruan txertatzen ditugu zenbait azpiegitasmo. Aurtengoan aurrekontu murriztagoen menpe, esparru honetan ekiteari ezin utzi, baina ezin horren zabal jardun.

Ohizko azpi egitasmoei eutsiko zaie eta, askotan, Euskara Zerbitzuak bereak dituen baliabieekin burutu beharko. Hona hemen familiabidezko jarraipenerako egitasmo orokor honen baitan 2019an izango diren azpi egitasmoak:

- **“Gurasoei begirako kanpaina”**: Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainen bate hartuko dugu (eman giltza, emaiizu bizia), daukagun materiala osatzeko. Aurtengoan ere, 2016an martxan jarritako eskaintza berri bati eutsiko diogu: HIK HASI erakundearen Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza jaioberrien gurasoentzat. Horrez gain, atal honetan daukagu aintzat hartuta “Gurasoentzako ikastaro bereziak” deituriko azpi-egitasmoa, guraso erdaldunei zuzendua.

2019rako Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendan ere parte hartuko dugu eta azpiegitasmo hori atal honetan txertatzea egokitzen jo dugu, agenda horren bidez haurrak gurasoekin dituen harremanak lantzen direlako, eskola bitarteko.

- **Familien arteko lehiaketa erraldoia** (3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei begirakoa). 2012 eta 2013 urteetan diru faltagatik baztertu eta, gurasoen aldetik izan ziren kexa eta eskakizunak bitarteko, 2014an berreskuratu zen azpiegitasmoa, lehentasuna eman zitzaiolako; 2019an ere eutsiko zaio eta indartzeko asmoa daukagu. Horretarako, URE elkartearekin sinatuko da hitzarmena.
- **“Euskaraz oparitu” kanpaina**: hau ere Alkarbidek koordinatzen du; guk ez dugu katalogoa banatzen, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu izan dugu azken urteetan, dendariekikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua). 2018an beste horrenbeste egin dugu eta 2019an ere berdin ekingo diogu.
- 2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta tajuz garatu da 2018ko azken hiruhilekoan, **“Kalean Olgetan”** lemapekoa eta 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatua. Kaleko jolas lekuetan burutzen da eta osagaiak ditu gurasoen partaidetza lantzeko. Argigarria dugu **V. ERANSKINA** (kanpaina hori abian jartzeko oinarritzko hausnarketa).

2.- HELBURUAK

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” deituriko proiektu hau, aipatu lau azpi-egitasmoekin osatzen dena, 2014-2018 epean indarrean egon den Euskara Sustatzeko Ekintza Planean aintzat harturiko neurri eta ekintzekin bat dator. Prest ditugu 2019-2023 eperako Ekintza Plana eta horrekin lotuta dagoen 2019ko Kudeaketa Plana, baina azken faseko galbahea pasatzea falta zaigu Osoko Bilkuran onartua izan dadin.

Egitasmo orokor honen arabera 2019ko Kudeaketa Planaren zirriborroan txertatu diren zenbait helburu, neurri eta ekintza bete nahi dira:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa Esparrua / Neurria / Ekintza

1. Familia bidezko transmisioa

1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)

1.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea

- 1.1.4.1.-Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak,# (SOBREA /MATERIALA: ku-ku, guraso elebidunen eskuliburua,#)
- 1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneeetan eskuragarri jarri#

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)

1.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea

- 1.3.1.1.- "Euskera olgetan errotu" kanpaina burutu, gurasoak eta umeak batera jolasean

Helburu Estrategikoa: 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko, auzogintza eta zerbitzugintza.

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

- 7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza, opor garaietakoak, udako ludoteka,

Helburu estrategikoa: Helburu guztietarako zehar-lerroak



Esparrua / Neurria / Ekintza

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.2. Familia transmisioa (Toki erakundeak)

14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

- 14.2.1.1.- Guraso eta aitona.amonenganako sentsibilizazio kanpaina burutu, ikastalde eta ikastaro bereziak sortzeko

Gurasoentzat ikastaro bereziak antolatzen dira 14.2.1.1. azpiekintzari jarraiki eta Berbalagun egitasmoarekiko loturak ere lantzen dira Guraso Elkarteekin. Diru laguntzei dagokienean, gurasoei ere zabalkunde berezia egiten zaie.

3- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “GURASOEI BEGIRAKO KANPAINA”

Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartuko dugu (eman giltza, emaiizu bizia), aurreko urteetan jasotako materiala osatzeko (KU-KU argitalpena -abesti bilduma-, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, adur zapiak, pegatinak, askari poltsak).

Jarraitu egingo da gurasoei ikastaro bereziak eskaintzen eta horretarako sentsibilizazio kanpaina berezi bat burutuko da.

2016rako gauza berri bat erantsi genion azpiatal honi: HIK HASI erakundearen Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza jaioberrien guraso euskaldunentzat. Hiruhilabetekaria da, gurasoberrientzat gai interesgarriak lantzen dituen aldizkari bakarra; 2016an 57 gurasok eman zuten izena harpidedun izateko; 2017an 51ek; 2018-2019 ikasturterako, horiek mantentzeaz gain, 21 gehiago lortu ditugu. Harpidetzaz aparte, Hazi Hezi aldizkariaren ale bereziaren 400 ale ere eskuratu genituen 2016an, edoskitzea eta jaioberrien kontuarekin lotuta dagoen alea.

Sarrera idatzian esan bezala, 2019rako Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendan ere parte hartuko dugu eta azpiegitasmo hori atal honetan txertatzea egokitzat jo dugu, agenda horren bidez haurrak gurasoekin dituen harremanak lantzen direlako, eskola bitarteko.

3.1.1.- OINARRIAK

- “Ondorengoetaratze kanpaina”-ko soberan dagoen materiala banatuko zaie jaioberrien gurasoei: gutuna, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, oparia, ku-ku liburuxka, HAZI HEZI aldizkariaren ale berezia.
- Gurasoei begirako euskarazko klaseak (AEK euskaltegiarekin elkarlanean).
- Anbulatorioarekin elkarlana, han ere jaioberrien gurasoei materiala banatzeko.
- HIK HASI erakundearekin eta ikastetxeekin elkarlana.
- Alkarbideren bitartez 600 bat eskola agenda eskuratuko dira, LHko azken zikloko ikasleentzat. Datorren ikasturterako (2019-2020) hiru zentrok adierazi dute interesa horretan parte hartzeko: Barrutia ikastetxea, San Fidel Ikastola eta Seber Altube ikastola.

3.1.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Udal Eskola Kontseilua eta guraso elkarteak.
- AEK euskaltegia (gurasoentzat eskainitako klaseak).
- Udaleko Erregistro eta Estatistika saila (jaioberrien gurasoei materiala)
- Anbulatorioko pediatria eta emaginaren zerbitzuak.
- HIK HASI erakundeko arduradunak.
- Alkarbide (Eskola Agenda)

- Baliabideak:

- Diru iturriak Euskara Zerbitzuarenak.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuarenak (HNT1), anbulatoriokoak (pediatria eta ginekologiako erizainak -2- eta emagina), eskoletako euskara arduradunak (gurasoei begirako kanpaina bideratzeko), euskaltegietako irakasleak (ikastaro bereziak), Udal Erregistroko arduraduna; HIZ HASI erakundeko arduradunak; Alkarbideko teknikariak.
- Erabiliko diren euskarri nagusiak, materiala:
 - Gutuna (jaioberrien gurasoei)
 - “Ku-Ku” haur kantak.
 - Ume elebidunen gurasoentzako aholkuen liburuxka.
 - Emaiozu bizia liburuxka eta DVDa
 - HAZI HEZI hiruhilabetekariaren harpidetza urte beterako.
 - Gurasoen ikastaldeak eratzeko gutuna/fitxa (zabalkundea)



3.1.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERALEAK

Xede taldea :

- 0-1 urte bitarteko umeen gurasoak (400), ondorengoetaratze kanpainaren materiala jasoko luketenak, eta anbulatorioaren bitartez eraginpean izango direnak.
- 14 urtera arteko umeen gurasoei eskainiko zaizkie ikastaro bereziak eta eurei zuzenduko zaie informazioa (2.500 ikasle, 5.000 guraso inguru).

Adierazleak:

- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta etxe barrurako eragina duen jakitea ezinezkoa zaigu une berean. Ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzari buruzko neurketen emaitzei jarraipena egiten diegu.
- Euskarazko klaseei dagokienean, klaseetan parte hartu dutenen kopuruak (2018-2019 ikasturterako 11 guraso daude izena emanda).
- Anbulatorioarekin sakondu beharrekoak ez dakigu nolako eragina izango duen, finkatzeke daude konpromisoak eta.
- Eskola agendaren arrakasta zentro bakoitzaren baloraziotik etorriko zaigu eta horrek eragingo du eskola agenda zentro guztietara hedatzea.

Etxean euskaraz egiten dutenen portzentajea (iturria: Eustat)

UDALERRIA	1991	1996	2001	2006	2011	Aldea
Gernika-Lumo	% 41,07 6.448 hizt. 15.697 bizt.	% 41,00 6.331 hizt 15.439 bizt	% 41,79 6.379 hizt 15.264 bizt	% 41,45 6.625 hizt 15.981 bizt	%40,89 6.361 15.558	-0,18
Bermeo	% 55,74 9.991 hizt 17.923 bizt	% 55,89 9.601 hizt 17.176 bizt	% 53,56 9.072 hizt 16.938 bizt	% 49,24 8.267 hizt 16.789 bizt	%45,21	-10,53
Mungia	% 34,00 4.046 hizt 11.900 bizt	%31,57 4.044 hizt 12.807 bizt	%27,64 3.817 hizt 13.807 bizt	%22,59 3.451 hizt 15.275 bizt	%22,75	-11,41
EUSK. AUT. ELK.	% 13,79 290.329 hizt 2.104.041 bizt	% 13,63 286.092 hizt 2.098.055	% 13,64 284.084 hizt 2.082.587 bizt	%13,02 277.277 hizt 2.129.339 bizt	%14,08	+0,29

Inguruko herrietan kontrako joera izan bada, Gernika-Lumon etxe barruan euskararekiko fideltasuna mantendu egin da, EAEn dagoen joerari eutsiz.

Ama-hizkuntza euskara (%)

UDALERRIA	1986	1991	1996	2001	2006	2011	Aldea
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	53,50	-7,30
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	59,91	-11,19
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	35,85	-20,95
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	19,30	19,27	-1,33

Iturria: Eustat

Hemen beheranzko bidea dugu orokorrean, apurka-apurka baina beherantza. Hizkuntza-gaitasunaren kasuan gertatu moduan, 2001-2006 urte bitarteko inflexioa ere nabarmentzen da hemen ere, beherakada handiagoa da beste urteetan baino eta.

Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi egin da 1986-2011 urte bitartean Gernika-Lumon (% 7,30 gutxiago).

Beldur gara ez ote duen **familiak ikastetxea hartuko hizkuntza ohiturak finkatzeko erreferente** bakartzat. Beharrezko da, hargatik, familietara beste bide batzuetatik ere ailegatzea.

Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean zehar

Lagina	468 harreman gurasoekin eta 311 harreman haurrekin (ekainean zehar)	
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak eskualderako zerbitzua ematen duelako
Gurasoak atzerritarak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berriak biztanleriaren %10a baino izan ez arren, pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara (zerbitzuko langileen motibazioa bitarteko? Bertako langileek euskaraz egin eta euren “prestigioa”-k erakarrita? Asertibitatea?) Datu honek, udalerriko euskaldunen portzentajea gaintitu egiten du (%67,87) eta helduen kaleko erabilera ere nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere (%69,10) gaintitu egiten da. Pediatriara joan diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen portzentajeak berdinak dira (%85); horrek adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100koa izan dela.
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarak dituzten umeen multzotik datorrela esan dezakegu, hizkuntza integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; gainera, atzerritarren bisiten portzentajea %15 izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola gunen horretan.

3.1.4.- AURREKONTUA (gurasoei begirakoa)

Ondorengoetaratze kanpainako zabalkundea (materiala)	1.000
Gurasoei euskarazko ikastaro bereziak	2.800
HASI HEZI aldizkariaren harpidetza (109x15)	2.000
Eskola Agenda (400 ale)	2.000
	7.800

3-2 FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA ERRALDOIA ("EUSKERA OLGETAN ERROTU")

Azpi egitasmo hau berreskuratzeko ahalegin berezia egin zen 2014an, 2012 eta 2013 urteetako etenaren ostean, gurasoen aldetik jaso ziren eskaera bereziak bitarteko. Esparru ez formalean euskararen erabilpenerako azpiegitasmo honek sortzen dituen baldintzak eta eragina kontuan hartuta, berreskuratu beharrean izan ginen, ahaztu barik familia osoari begirako dugun egitasmo bakarra dela; 2019an eutsiko zaio eta, ahal bada, sendotu.

3.2.1.- OINARRIAK

- Lehiaketa formatoa duen egitasmoa dugu, baina ez konpetitiboa, baizik eta gurasoak umearekin gainditu beharreko froga batzuetan oinarritua. Sariak guztientzat.
- Guraso euskaldunak eta erdi-euskaldunak beraien seme-alabekin bikoteka aritzea, froga desberdinak bitarteko: euskal jokoak, txisteak, bertsoak, abestiak, galderak, mimika. Puntuak pilatuz, sariak lortzen dira.
- 3 ekitaldi izango dira: azaroan bi eta abenduan beste bat (azken saioan, sari-banaketa eta jaialdi nagusia).

3.2.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- URE Elkarteak Udalaren laguntzarekin lehiaketa antolatzeko arduraduna izango da. (Hitzarmena): 10 monitore arduratzen dira garapenaz.
- Diru iturriak (Euskara Zerbitzua). Kanpaina hau burutzeko Euskara Arloko aurrekontuan 7.400 €ko gastua aurreikusiko da (hitzarmenean aintzat hartutako konpromiso ekonomikoa).

3.2.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

- Familien lehiaketa erraldoia antolatzeko, 3-6 urte bitarteko haurren etxeetara (600 bat) bidaliko da informazioa (eskutitza, bi orrikoa, izena emateko fitxa) eta jarraipena egiteko, egun bakoitzako ebaluazio-fitxa bat beteko da (partaide diren familien kopurua, adina, ekintzaren eta ordutegiaren egokitasuna ...).

- Gurasoen xede taldea umeen bikoitza (1.200) izango da gutxi gora-behera. Ezinbesteko baldintza izango da gurasoa eta umea batera aritzea.

Adierazleak:

- Parte hartuko duten ume (izen-abizenekin zerrendatutakoak 200 bat izan dira aurreko urteetan) eta gurasoen kopuruak eta landutako unibertsoarekiko portzentajea.
- Egun bakoitzean parte hartuko duen ume eta gurasoen kopuruen arabera, hizkuntza erabilera neurtzeko erabiltzen diren euskaldunen dentsitate eta abarretako irizpideei jarraiki, euskararen erabilera esparru ez-formaletan areagotzeko baldintza egokiak finkatu diren neurtu.
- Eustatek ateratzen dituen datuetatik, ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren erabilerari buruzko portzentajeen bilakaera kontrolatzea.

3.2.4.- AURREKONTUA (familien arteko lehiaketa)

URE hitzarmena (antolaketa, monitoreak, hiru egun)	7.400
- Monitoreak (7 monitore, antolaketa+garapena).....	2.800
- Materiala.....	3.200
- Publizitatea/zabalkundea.....	Udala
- Sariak/Opariak.....	1.400
GUZTIRA	7.400

3.3.- “EUSKARAZ OPARITU” KANPAINA

Sarrera idatzian esandakoa dakargu hona: “...*hau ere Alkarbidek koordinatzen du; guk ez dugu katalogoa banatzen, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu izan dugu azken urteetan, dendarietikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua). 2018an beste horrenbeste egin dugu eta 2019an ere berdin ekingo diogu.*”

3.3.1.- OINARRIAK

- Euskarazko produktuen katalogorik zuzen ez, baina zeharkako zabalkundea egingo da: 3.000 orri berezi banatuko zaizkie LH eta DBHko ikasleei, euren etxeetara bideratuz.
- Jostailu denda guztietan kanpaina berezia burutuko da, 2018koaren parekoa (euskarazko produktuen salmentetan %5eko deskontua egitea adostu zuten) eta orduan erabilitako materialari etekina aterata. Hemen ere informazio orriaren beste 3.000 ale banatuko dira

3.3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:
 - Euskara Zerbitzua (egitasmoaren koordinazioa).
 - Ikastetxeak (7)
 - Jostailu / opari dendak (5)
- UBaliabideak:
 - Euskara Zerbitzuak diruzkoak eta koordinaziorako giza-baliabideak (HNT).
 - Ikastetxeetako zuzendariak (koordinaziorako bilkuretan parte hartuz).
 - Saltokietako arduradunak.

3.3.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

- LHko eta DBHko ikasleak bitarteko (3.000 inguru), gurasoek (6.000) etxean jasoko dute informazio orria.
- Jostailu dendariei begirako kanpaina: guztira 5 denda txiki eta handi, 2018an ere parte hartu zutenak.

Adierazleak:

- Materiala jaso duen ume kopurua xede taldearekin erkatuta.
- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta bere eragina neurtzeko tresnak baliatzea oso zaila da. Dendariekin elkarlanean kanpainaren jarraipen zehatza egiteko adierazleak landu beharra dugunez, fitxa berezi batzuk prestatuko dira horretarako eta horietatik aterako diren datuetatik aterako ditugu ondorioak.

3.3.4.- AURREKONTUA (euskaraz oparitu)

Euskaraz oparitu kanpainarako orri berezia (6.000) inprimaketa	600
Zabalkunderako gastuak	200
Guztira gastuak	800

3.4.- “KALEAN OLGETAN” KANPAINA

Sarrera idatzian aipatutakoa ekarri behar hona: “2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta tajuz garatu da 2018ko azken hiruhilekoan, “**Kalean Olgetan**” lemapekoa eta 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatua. Kaleko jolas lekuetan burutzen da eta osagaiak ditu gurasoen partaidetza lantzeko”. Argigarria dugu **II. ERANSKINA** (kanpaina hori abian jartzeko oinarrizko hausnarketa).”

3.4.1.- OINARRIAK

Euskararen erabilera areagotzea helburu eta Gernika-Lumoko Udalak URE elkartearekin sinatuko duen hitzarmena zutabe nagusi, honako hauek dira “Kalean olgetan” kanpainaren oinarriak:

- 5/12 urte bitarteko haurrei eta euren gurasoei zuzendua.
- Astegunetan hiru egunez maila informalean eragitekoa (plazetan eta jolas parkeetan; San Juan Ibarra plaza, San Kristobal Plaza, Pasealekua).
- Gurasoen partaidetza zuzena lantzeko jolasei buruzko fitxak eta talde jolasak eskaini.
- Zabalkundea ere in situ egingo da, kanpainaren kronograma gurasoei emanda.
- Ekitaldien kronograma finkatuko da URE elkartearekin adostuta.

3.4.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Gaztedia Saila.
- “Urdaibai Rugby Eskola” aisialdirako elkarte.

Giza-baliabideak:

- HNT teknikaria.
- Gazte informatzailea.
- URE Elkarteko koordinatzailea eta hiru monitore.
- Diruzkoak: Euskara Sailarenak.

Azpiegitura:


- Gaztelekua (Kultur Etxea Fundazioa) eta bertako material guztia (jostailuak, mahaia, aulkiak).
- Gorpildun tramankulu berezia eta karpa txikia (jostailuak eta materiala lekutik lekura erabiltzeko). Kanpainaren erreferentia.
- Megafonia berezia.

3.4.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

“Kalean olgetan” jolastokietan maila informalean eragitekoa, 5-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Xede taldea 800 batekoa (2018ko emaitzen txostenak adierazten digu egun bakoitzean “partaide” izan den bataz-besteko haurren kopurua 100 batekoa izan dela, lekuaren eta egunaren arabera datuak aldatuak izanik).

Adierazleak:


- Programa bakoitzean parte hartu duten gaztetxoek kopurua.
- Haur eta gaztetxoek artean euskararen erabilpenak izan duen bilakaerari buruzko datuak batzen ditugu (Soziolinguistika Klusterrak lau urterik behin egiten duen neurketa berezia).



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2016ko kale neurketa)

- **Belaunaldi gazteenak dira, 1989-2016 urte bitartean erabileran hazkunderik altuena bizi izan dutenak:** gazteen erabilera 45 puntu areagotu da, eta haurrek, berriz, 27,2 puntu gora egin dute erabileran. **Baina kezkatzekoa da haurren erabilerak behera egin duela 2006tik 2016ra ia 9 puntu, beste adin taldeena mantendu denean. Gazteena ere mantendu egiten da.**
- **Helduen erabilera, oro har, 4 puntu igo da aztertutako hogeita zazpi urteko epean;** 1989tik 2001era bilakaera positiboa (8 puntu gora) eta 2001etik 2016ra behera 4 puntu.
- **Adinekoetan, berriz, gutxika beheranzko joera dago erabileran:** 18 puntu. Beherakada horrek etena izan du 2011-2016 urte bitartean.

HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA ERABILERAN



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

- Dakusagunez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean** (bai erdiguneko kaleetan zein ikastetxeetan. Ikastetxeetan haurrak eta nagusiak nahasian ari direnean %71,4ra igotzen da erabilera).
- Egindako neurketa desberdinetan (2001, 2006, 2011, 2016) antzeko joera ikusi da, baina gauza pare bat argitu behar:

1.- Haurrak bakarrik daudeneko datuetan kezkatzekoa da azken 5 urteetan izan den beherakada nabarmena, ikastetxetik kalera dagoen alde handia.

2.- Nagusiak haurrik barik daudeneko datuetan jaitsiera izan da eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenekoetan ere bai. Argitu behar baita ere, haurren presentzia soilak ez duela eragiten helduen/adinekoen erabileran, elkarrizketan parte hartzeak baino.

3.4.5.- AURREKONTUA (“Kalean olgetan”)

URE hitzarmena (antolaketa, monitoreak, astean hiru egun eta hiru hilabetez):	7.400
- Monitoreak (3 monitore / 36 ekitaldi x 190 €.....	6.840
- Materiala (jostailu berriak).....	500
- Publizitatea/zabalkundea/Fitxak.....	420
GUZTIRA	7.400

4.- KRONOGRAMA (2019)

“Gurasoei begirako kanpaina”	Urt.	Ots.	Mar	Api.	Maia	Ek.	Uzt	Ir.	Ur.	Az	Ab
Materiala sailkatu											
Fitxak zabaltu eta batu								2018	2018		
Gurasoen ikastaldeak eratu									2018		
Gurasoei ikastaroak eman	2019	2019	2019	2019	2019					2018	2018
Gurasoei HASI HEZI aldizk.											
Anbulatorioa (banaketa/jarraip.)											
Udal Erregistroa (“ “)											
Eskola agenda banatu											
Jarraipena (eragileen batzarrak)											
Familien arteko Lehiaketa											
UREkin batzarrak											
Triptikoa											
Aurkezpena											
Zabalkundea											
Inskripzioa											
Ekitaldiak											
Euskeraz oparitu											
Dendariekin batzarra (2018ko balorazioa; hausnarketa)											
Dendariekin batzarra (2019ko kanpaina prestatzeko)											
Orri bereziaren banaketa / ploterrak)											
Kalean olgetan 5-12 urte bitartekoentzat											
Kanpaina prestatzeko bilkurak											
Jolas parkeetan burutzea											

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

“Gurasoei begirako kanpaina”	7.800
Familien arteko lehiaketa	7.400
“Euskeraz oparitu” kanpaina	800
“Kalean olgetan” kanpaina	8.000
Gastuak guztira	24.000

Gernika-Lumon, 2019ko urtarrilean.

Marisa Aldamizetxebarria
Euskara Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

I. Eranskina: Gurasoei banatutako fitxa.

CURSOS BASICOS DE EUSKERA PARA PADRES Y MADRES **(EUSKALDUNIZACION)**

EUSKARA IKASTAROAK GURASOENTZAT / ZAINTZAILEENTZAT

El Area de Euskera del Ayuntamiento de Gernika-Lumo oferta cursos básicos de euskaldunización en colaboración con el Euskaltegi de AEK de Gernika con la finalidad de ofrecer unos **CONOCIMIENTOS BÁSICOS DE EUSKERA A LOS PADRES / MADRES NO EUSKALDUNES.**

- **Puedes ayudar en las tareas de casa a tus niñ@s.**
- **Puedes motivarles con tu actitud.**
- **Y te enriquecerás...**

Guraso erdaldunak ezagutzen dozuzala? Ba, animatu eizuz!

Características del curso:

- Grupos de un mínimo de 8
- Duración: de noviembre a junio (120 horas).
- Tres sesiones de una hora a la semana
- Precio: 60€ (material)
- **Prematrícula hasta el 10 de octubre.**

Ficha de prematrícula (a entregar en el centro escolar)

Aurre-matrikularako fitxa (eskolan aurkezteko)

Nombre y apellidos / Izen-Abizenak: _____
Centro escolar con el que se relaciona: _____
Zein ikastetxegaz daukazun lotura
Telefonoa: _____

<i>Cual es tu nivel de euskera?</i> Zein da zure euskera maila?	☐ Empiezo de cero / Ez dakit ezer ☐ Entiendo algo / Zeozer ulertzen dut ☐ He hecho algún cursillo / Ikastaroren bat egin dot
Indica con una X el horario que prefieres Adierazi X batez gurago dozun ordutegia	☐ Mañanas / Goizean ☐ Anochece / Iluntzean
Escoge tres días de la semana Aukeratu asteko hiru egun	☐ Lunes / Astelehena ☐ Martes / Martitzena ☐ Miércoles / Eguaztena ☐ Jueves / Eguena ☐ Viernes / Barikua

**II. Eranskina: URE elkartearekin hitzarmena Familia
lehiaketarako (zirriborroa)**

**URDAIBAI RUGBY ESKOLAK
ELKARTEAK ETA GERNIKA-
LUMOKO UDALAK ELKARLA-
NERAKO SINATURIKO HITZARME-
NA**

-----O-----

**“EUSKERA OLGETAN ERROTU-
FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA
ERRALDOIA-2019” JARDUERA
BURUTZEKO eta “EUSKARAZOKA”
AGITASMOA GARATZEKO.**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hamazortziko-renan eta Erakundearen Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Patxi Bartolome Marques, adinekoa eta NAN zbk. 18.601.501-K duena, Urdaibai Rugby Eskola Elkartearen izenean (IFK: G-95161980).

Bestetik, Jose Maria Gorroño Etxebarrieta Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 211.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duenari.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa onartu zuen, 2003-2008 epean indarrean egon zena; 2008ko abenduaren 17an onarpena eman zion 2009-2013 eperakoari. Gaur egun, indarrean dago Euskara Gernika-Lumoko ESEP (Sustatzeko Ekintza Plana) 2014-2018 eperako..

Familiaren esparruarekin lotura daukan ekintza zehatza garatu izan da 2003tik hona eta 2016ko Kudeaketa Planean ere “familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak” deiturikoa aurreikusita dago.

Aipatutako ESEPe ezarritako xedeak oinarri, euskararen erabilpena normalizatzeko antolatzen dituen kanpainen artean “Euskarazoka” egitasmoa dauka (ekainetik abendura bitartean, hilabete bakoitzeko lehenengo zapatuetako azoketan argitalpenak salgai jartzea, Euskara Zerbitzuak hainbat eragilerekin urteetan zehar argitara emandakoak), euskara elikatze helburu estrategikoarekin lotuta dagoen “kulturgintza” esparruan irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz.

II

2001eko maiatzean sortu eta Eusko Jaurlaritzaren erregistroan AS/B/092226/2001 zenbakiarekin inskribatua izan zen Urdaibai Rugby Eskola Elkartek (aurrerantzean “URE Elkartea”), urtean zehar aisialdirako ekitaldiei lotura bat eman eta gaztetxoei zerbitzu iraunkor bat eskaini asmoz, egitasmo berezi bat eratu zuen asteburu eta oporraldietarako duela hamaika bat urte. Hori aitzakia, “Euskera olgetan errotu” kanpaina martxan jartzerakoan ere Euskara Zerbitzuak beraiekin adostu zuen elkarlana, gaur egun dirauena.

Bestalde, aurreko urteetan “Euskarazoka” egitasmoa garatu ahal izateko elkarlanean aritu izan da Euskara Zerbitzuarekin eta 2018an ere bide horretatik jarraitzeko eskaera-orria aurkeztu du.

III

Aipatutako guztiagatik, familiei begirako “EUSKERA OLGETAN ERROTU-2017” egitasmoa burutzearekin bat datozelarik eta “EUSKARAZOKA” programa garatzeko elkarlanari eusteko asmoarekin ere bai, Urdaibai Rugby Eskola Elkartek eta Gernika-Lumoko Udalak honako ELKARLANERAKO HITZARMENA sinatzen dute finkatuz hurrengo

KLAUSULAK

Lehen.- Urdaibai Rggby Eskola Elkartek hurrengo konpromisoak hartuko ditu:

a).- “EUSKERA OLGETAN ERROTU-2018” jarduera burutzea, hitzarmen honi lotuta doan egitasmo bereziaren arabera (1. Eranskina).

Egitasmoa honako hauei zuzenduta dago: 3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei. Beraz, gutun-gonbidapen bidez egingo den zabalkundea burutzeko, 2013, 2014 eta 2015 urteetan jaioen etxeetara bidaliko da. Horretarako, datuen babeserako legea kontuan hartuta, Gernika-Lumoko Udalak emandako etiketak erabiliko dira, izen-abizenik gabeak.

b).- “EUSKARAZOKA” deitzen den programa garatzeko giza-baliabideak jartzea.

Bigarrena.- Urdaibai Rugby Eskola Elkartek 2018ko azken hiruhilekoan ekingo dio “Euskera olgetan errotu” egitasmoa Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean burutzeko, hurrengo kronograma honen arabera:

Jarduerak	Urria	Azaroa	Abendua
Antolaketa. (URE+EUSK. ZERB)	osoa	osoa	
Zabalkundea: gutunak etxeetara (URE)	..tik ..ra gutunak		
Prentsa oharra / Prentsaurrekoa (URE+EUSK. ZERB.)			
Zabalkundea: kartelak (URE)			
Ekitaldiak (URE)			
Balantze orokorra (URE-EUSK. ZERB)			...rako

Hirugarrena.- “Euskarazoka” programari dagokionean, URE Elkartek bi monitore jarriko ditu zeregin guztietarako eta honako azoka egutegian zerbitzua emateko:

- Ekainak 3 (10:30-14:00)
- Uztailak 1 (10:30-14:00)
- Abuztuak 5 (10:30-14:00)
- Irailak 2 (10:30-14:00)
- Urriak 7 (10:30-14:00)
- Azaroak 4 (10:30-14:00)
- Abenduak 3 (10:30-14:00)

Laugarrena.- Egitasmoak burutzeko erabili beharko diren publizitate euskarri guztietan aipatuko da Urdaibai Rugby Eskolak antolatua dela, Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren babesarekin duela eta ESEP garatzeko diru laguntzak ematen dituzten Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren aipamenak ere jaso beharko.

Laugarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, hitzarmen honetarako beharko diren diru-partidak egokitzeke ardura hartuko du. Hitzarmen honengatik aurrekontu osoa 8.300 eurokoa da eta hitzarmena

sinatzerakoan emango zaio Urdaibai Rugby Eskola Elkarteari aipatu kopurua diru laguntza gisa. Aurrekontu atalak hurrengoak dira:

“Euskera olgetan errotu” kanpainarako:	7.400
- Antolaketa eta monitoreen (15) gastuak... 2.800	
- Materiala..... 3.100	
- Publizitatea eta sariak..... 1.500	
“Euskarazoka” programa garatzeko (bi monitore/7 egun/	900
GUZTIRA	8.300

Bosgarrena.- Urdaibai Rugby Eskolak eta Euskara Zerbitzuak, egitasmoen kronogramaren arabera, gutxienez hileroko batzarrak egingo dituzte eta Urdaibai Rugby Eskola Elkarteak 2017ko abenduaren 31rako egitasmoen garapenari buruzko txosten bat aurkeztuko du, gastuen zurigarriak barne.

Seigarrena.- Hitzarmen honetan adierazia finkatutako epean betetzeko arazoak sortuko balira, sinatzaileek adostu egin ahal izango dute epeak luzatzea eta diruzko bete-beharrak egokitzea; adostasunik lortzea posible ez balitz, Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren arbitraia ontzat eman dute sinatzaileek.

Eta adostasunaren seinale, agiri hau sinatzen dute bildutakoek.

URDAIBAI RUGBY ESKOLA,

GERNIKA-LUMOKO ALKATEA,

Patxi Bartolomé Marques

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta


EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA,

IDAZKARI NAGUSIA,

Marisa Aldamizetxebarria

Jon Goikoetxea Etxebarria

III. Eranskina: EPK kanpainarako euskarria



HEMEN
SALGAI

euskarazko
produktuak

%5eko DESKONTUA
euskarazko produktu guztietan
Abenduaren 1etik 31ra

BEREZI Juan Calzada, 14	AMILOTX San Juan, 25	OBABA Iparragirre 22
ANA OPARIAK Carlos Gangoit, 6	GAUBEKA Don Tello, 3	ZARRA Barrenkalea, 4

www.katalogoa.org
info@katalogoa.org

musika informatika filmak aldizkariak
komikiak liburuak jostailu eta jokoak
gurasoentzako materiala







IV ERANSKINA



Udaleko jaun-andre agurgarriak,

Hik Hasi egitasmoak 20 urteetan aldizkariak, topaketak, jardunaldiak, mintegiak, liburuak, DVDak eta abarren bitartez milaka irakasleren formakuntzan lagundu du. Orain, **Hazi Hezi aldizkaria** ezagutarazten eta zabaltzen jarri nahi ditu bere indarrak.

Hazi Hezi etxerako haziera eta heziketa aldizkaria

Hazi Hezi aldizkaria, duela hiru urte, 2012ko maiatzean jaio zen.

Haurrak, nerabeak eta gazteak izan dira, eta dira, jendarte ororen orainaz gain, etorkizuna. Haien heziketa, jendarte ororen ardura nagusienetakoa izan beharko luke. Egun, gure inguruotan bederen, helduok eta antolatu ditugun erakundeok haurtzaroaren eta nerabezaroaren ongizatea gizartearen osasun eta kultura aurrerapenaren adierazletzat jotzen dugu.

Familiak dira haurrek ezagutzen duten lehenengo sare soziala, eta etxeak, lehenengo hezitokiak. Eskolak geroxeago, eta etxeokaren gehigarri gisa azaltzen da haurraren bizitzan. Aisialdia eta inguruko komunitatea (auzoa, herria...) piskanaka, indarra hartzen joaten dira.

Egungo bizimodu espezializatu eta modernoan aditu edo profesionalen esku utzi ditugu ardura garrantzitsuenak (osasuna, heziketa, espiritualitatea, artea, politika,...), baina, gure ustez, berriz eskuratu beharko genuke, heldu guztiok, haurren bidaide izateko misioa. Horregatik, haurrekin etxeetan harremana duten heldu horiexek guztiak gogoan hartuta jaio zen Hazi Hezi aldizkaria.

Etxeko heziketaren garrantzia azpimarratzeko eta bitartekoak eskaintzeko asmoz, Hik Hasik Udalarekin akordioa egin nahiko luke, 2016. urtean jaioko diren haur guztien gurasoei oinarritzko aldizkaria eskura jartzeko konpromisoa hartzeko.

Udalarekin Hik Hasik proposatzen duen akordioa

Bizikidetzan aurrera egiteko, beharrezkoa da funtsezko balioak zein diren adostea eta, koherentziaz, haietan hezteak. Eta, hori, komunitate osoaren egitekoa dela deritzogu. Horregatik, denon ahalegina eta inplikazioa beharrezkoa da, etxetik hasita.

Hori horrela, hauxe da Hik Hasik Udalarekin adostu nahiko lukeena:

1. 2016an herriko jaioberrien gurasoei oinarritzko aldizkaria banatzea 4 euroren truke.

2. Udalak jaioberrien gurasoei urtebeteko harpidetza eskaintzea, eta eskatzen dutenei soilik harpidetza egitea. Urtebeteko harpidetza (4 aldizkari) 15 euro izango da Udalarentzat.

Harpide egin litezkeen kopuruaren kalkulua

Udalari, harpidetzen inguruan kalkulua errazteko asmoz, proposamena egin nahi diogu. Hau da, aurrekontuetan kontuan hartu beharreko kopurua zehazteko formula zahatza:

- Udalerrian euskaraz dakitenen kopuruaren %75 kontutan hartzea proposatzen dugu.
- Harpidetza eskatzen duten gurasoen kopurua hortik gora baldin bada, HIK HASI bera egingo litzateke kopuru horren kargu. Hau da, Udalak ez luke inoiz ere guk proposatutako diru kopuru hori baino gehiago ordainduko.
- Urte bukaeran eginiko harpidetza kopurua baxuagoa izanez gero, hurrengo urterako erabili liteke, edo bestela, dagokion kopurua itzuliko genuke.

Fakturazioa eta ordainketa

- Eginiko kalkuluaren %50 urte hasieran fakturatuko genuke eta urtearen amaieran guztiaren likidazioa egingo litzateke.

Zuen herriari dagokionez, hauek lirateke guk proposaturiko kopuruak:

175 jaiotzak (2013ko EUSTATEko datuak)

http://eu.eustat.eus/elementos/ele0005700/ti_bizirik-jaiotza-bizilekuari-jarraiki-sexuaren-jaiotza-ordenaren-eta-amaren-egoera-zibilaren-arabera-2013/tbl0005711_e.html#axzz3gWGkCA5A

%83,57 Euskara gaitasuna (Soziolinguistika Klusterreko datuak)

<http://www.soziolinguistika.eus/edb2/index.php?erakus=orriak&zo=4430> jaioterriaren arabera

1. Jaio berri guztien gurasoei oinarritzko alea banatzea: $175 \times 4\text{€} = 700\text{€}$ BEZa barne

Euskaraz dakiten Jaio berrien gurasoei oinarritzko alea banatzea: $175 \times 4\text{€} = 436\text{€}$ BEZa barne

2. Harpidetza eskeintzea: Egindako kalkuluaren emaitza: (109,68) $109 \text{ borobiltzeko} \times 15\text{€} = 1635\text{€}$ BEZa barne

Zuek beste kopuru bat proposatzen dabuzue edo zalantzaren bat bazenute deitu lasai.

Hik Hasiren proposamena zuen gustukoa izango delakoan, hartu gure agurra.

Unai Lizaso

sustapena@hikhasi.eus (943 37 14 08)
Donostian, 2015eko azaroan

V. ERANSKINA

“KALEAN OLGETAN” KANPAINARAKO HAUSNARKETAREN TXOSTENA

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO KALE NEURKETA - 2016

HAURREN ERABILERARI BURUZKO HAUSNARKETA ETA SORTUTAKO KEZKAGATIK EGINDAKO PROPOSAMENA

Soziolinguistika Klusterrak 2016an egin du neurketa, metodología zientifikoa eta baliabide teknologikoak erabilia. Neurtutako hiztun kopurua guztira (adin guztietakoak): 5.491 hiztun.

Kontuan hartu behar da haurtzat hartzen direla 12/13 urtera artekoak.

Neurketa horretako emaitza orokorren arabera moldatu dugu hurrengo hausnarketa, haurren erabilerari erreparatuta kezka sortu zaigulako.

Erabilera orokorra eta adin multzoka	2011 URTEA	2016 URTEA	
Erabilera orokorra	%52,00	5.491 / euskaraz 2.714	%49,4
Haurrak	%69,1	2.210 / euskaraz 1.312	%62,2
Gazteak	%54,8	356 / euskaraz 193	%54,21
Helduak	%43,3	2.425 / euskaraz 996	%41,01
Adinekoak	%36,1	600 / euskaraz 213	%35,5

ONDORIO NAGUSIAK

- 1) Haurrak dira euskararik gehien erabiltzen dutenak orokorrean, baina kezkatzekoa bada haurren erabilera orokorrean dagoen beherakada, **kezkagarriagoa** da haurren erabileran dagoen **aldea ikastetxetik kalera** (17 puntu gutxiago). Hona hemen datuak:

Haurren erabilera	2011 urtea	2016 urtea
Orokorra	%69,1	%62,2
Ikastexe inguruan	-----	%70
Kalean	-----	%52,6

- 2) **Eta are kezkarriagoa “haurrak bakarrik” daudenean** jasotzen ditugun 2016ko erabilera datuak (25 puntu gutxiago kalean ikastetxean baino):

Haurrak bakarrik ikastetxean 2016	Euskaraz %66,7
Haurrak bakarrik kalean 2016	Euskaraz %41,4

Dinamika hori (ikastetxetik kalerako aldea) aurreko neurketetan ere gertatu izan delako ustea daukagu, baina ez dago “haurrak bakarrik” daudeneko ikastetxe inguruko beste neurketetako daturik.

- 3) **Haurrak eta gurasoak nahastean daudenean, ostera, erabilerak gora egiten du**, bai gurasoen kasuan zein haurrenean ere; gainera, mantendu egiten da haurren erabilera altua ikastetxean zein kalean:

	Euskaraz orokorrean	Euskaraz haurrak protagonista	Euskaraz nagusiak protagonista
Haurrak eta nagusiak nahastean ikastetxean	%71,4	%76,3	%58,4
Haurrak eta nagusiak nahastean kalean	%56,8	%67,4	%43,4

PROPOSAMENA

Ezin utzi hemen aipatu barik **aurrekari batzuk**. Euskara Sailak sustatuta eta URE elkartearen eskutik, “**Asteburuetakoa aisialdia**” deituriko egitasmoari 2002an ekin zitzaion, 6-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, eta bidean sartu zen “**Gaztelekuko zapatuak**” egitasmoa ere, 12-16 urte bitartekoei eskainitakoa Gaztelekuan bertan.

Urteak joan ahala, bidean geratu zen “Asteburuetakoa aisialdia” deiturikoa, diru falta aitzakia (2010ean...).

Orain, euskararen erabilerari buruz 2016an egin den kale neurketaren emaitzek kezka sortu digute. Haurrek, 5-12 urte bitartekoek, maila informalean (kalean) eta euren artean bakarrik ari direnean, erabileran beherakada nabarmena dute, ikastetxe inguruetakoa erabilerarekin alderatuta.

Horri konponbidea ipini nahian, **hausnarketa talde bat osatu genuen** 2016ko maiatzean (URE Elkarte, Kultur Etxeko zuzendaria, Gazteen Informazio Bulegoko arduraduna, Gazteria arloko zinegotzia, Euskara zinegotzia eta Euskara Zerbitzua), haurrek kalean dituzten harremanetan eraginkorrak diren barietateak aztertzeke (jolas parkeak eta haurren bilguneak, adin multzoak eta haur tipologia, ekintza mota, biltzeko

orduak eta egunak,...) eta, ondorioz, **soluzioak planteatzeko**. **Helburua:** 5-12 urte bitarteko haurren hizkuntza ohituretan eragin maila informalean (horra hor Donostian gauzatzen ari den pareko egitasmoa: PARKETARRAK).

Hausnarketarako oinarri gisa, Euskara Zerbitzuak honakoa luzatu zion URE elkarteari:

1).- Haurren jolas gunek (jolas parkeak) eta leku bakoitzean izan daitezkeen **variableak identifikatu (gurasoen presentzia, haurren adin multzoak eta tipologia, jolas motak, lekuko baliabideak, estalpe gunerik dagoen, biltzeko orduak eta egunak,...) eta **bi hilabeteko epean proposamen bat diseinatu**.**

2).- Diseinatutako egitasmoari ekin 2017ko urte bukaeran (hilabeteak zehazteke). Horretarako, Euskara Sailak gorderik daukan 4.000/5.000 euroko diru partida erabiliko da.

3).- Egitasmoaren garapenaz balorazioa egin 2018 urteari begira eta Udal saila desberdinen arteko elkarlanari (Kultur Etxea, Gazteri Arloa, Euskara Saila) eutsi, bakoitzak ahal duen diru ekarpenarekin **urte osoko egitasmoa borobiltzeko.**

URE Elkarteak KALEAN OLGETAN ekimena proposatu zuen iralean (1. Eranskina):

Egindako hausnarketari eutsiz eta guk emandako irizpideak kontuan, URE elkarteak proposamen zehatz bat aurkeztu zuen, KALEAN OLGETAN ekimena, bi hilabeteko esperientzia pilotoa burutzeko hiru jolas-leku desberdinetan (Pasealekuan, San Juan Ibarra plazan eta San Kristobal plazan), maila informalean eta zeharbidetik haurren erabileran eragin asmoz.

Horrez gain, badaukagu beste egitasmo baten berri:

Gaztetxoen erabileragatiko kezkak eraginda, Iametza enpresarekin bildu zen Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta eurek azaldu ziguten Oarso-Aldeko Euskara Zerbitzuekin elkarlanean esperientzia bat diseinatzen ari zirela. Horren fruitu izan da Iametzak HPSri aurkeztu dion proposamena, Oarso-aldean eta Gernika-Lumon esperientzia piloto bat garatzeko: **“kuxkuxeroak” egitasmoa (2. Eranskina)**, 12 urtetik 18 urte arteko gaztetxoen erabileran eragiteko (baliabideak: erreferente diren pertsoekin solasaldiak, teknologia berrien erabilera,...). Zehaztasunak ezagutzeko irrikitan gaude, gure kabuz egiten ari garenarekin hori ere uztartzeko.

Guztiak izango ditugu beharrezko erabileran eragiteko, bainaitsu-itsuan ekin beharrean, lehentasunak markatu, eragin gunek edo moduak ondo diseinatu eta patxadaz garatu behar dira eraginkorrak izan daitezen.

Gernika-Lumo, 2017ko iraila
EUSKARA ZERBITZUA

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria

Jolasen Kutxa: Egunean proposatzen diren jolasekin.
70cm altuera x 110cm luzera x 80cm zabalera



Banatzeko jolasen jarraibideak: Egunean
proposatzen diren jolasekin.



400w Soinu ekipoa
mikroarekin: Egunean girotzeko.



Kalean Olgetan: Lekuak.

- 1- Pasilekua: Futbol Kantxa. Euriarekin arkupean.
- 2- San Kristobal Plaza: Plaza erdian. Euriarekin etarteetan.
- 3- San Juan Ibarra Plaza: Plaza erdian. Euriarekin Merkatu Plazan.

*D. Gureldi
Ibarra
ASTRI*

Kalean Olgetan: Datak:

Urria:						
16	17	18 Pasilekua	19 San Kristobal	20 San Juan Ibarra	21	22
23	24	25 San Juan Ibarra	26 Pasilekua	27 San Kristobal	28	29
30	31					
Azaroa:						
		1 San Kristobal	2 San Juan Ibarra	3 Pasilekua	4	5
6	7	8 Pasilekua	9 San Kristobal	10 San Juan Ibarra	11	12
13	14	15 San Juan Ibarra	16 Pasilekua	17 San Kristobal	18	19
20	21	22 San Kristobal	23 San Juan Ibarra	24 Pasilekua	25	26
27	28	29 Pasilekua	30 San Kristobal	1 San Juan Ibarra	2	3 ENE

Kalean Olgetan: Ordutegia:

17:30-19:30

Kalean Olgetan: Zer egingo da:

- 1- Ume eta gazteentzako euskal musikarekin girotu eta mikroarekin argibideak eman.
- 2- Jolasen kutxako materialak banatu eta jaso.
- 3- Ume eta gurasoei eguneko jolasen jarraibideen orriak banatu. Asmoa eguneko jolas bi aurkeztea da.
- 4- Jolasak dinamizatu.

Kalean Olgetan: Jolasak:

Soka saltoa, uztaia, pilota bigunak (poto-poto, zalai errea,...), hankapalu txikiak, tronpak, puztarriak, txapak, tortolosak, kartak,...

Kalean Olgetan: Giza baliabideak:

Bi begirale euskaldun eta koordinatzaile bat.

Kalean Olgetan: Egitasmoaren logoa:

Kalean  Olgetan